

# Arteari buruz Haizea Barcenillarekin

Haizea Barcenilla arte-historialariak artearen inguruko alor ezberdinak jorratzen ditu. Baita artearen inguruko hainbat hausnarketa eta ikerketa ildo ere: komisariotza, erakusketen eta artisten diskurtsoak, emakume artisten historia nola kontatu den, arte-zentroen rola... Horiek guztiak hizpide izan ditu elkarrizketa honetan.

Bideoa ikusi eta ondoko ariketa egin dezakezu.



*Haizea Barcenilla arte-historialaria. Argazkia: Kultur Atelier*

Bideoa ikusi eta erabaki zein den kasu bakoitzerako amaiera egokia.



<https://labur.eus/mekV4>

## 1. Baieztapen hauetatik zein da gezurra?

- a) Haizeak unibertsitatean klaseak eskaintzen ditu.
- b) Elkarrizketatua historialaria izateaz gain, artista ere bada.
- c) Barcenillak arteari buruzko kritikak idazten ditu.

## 2. Haizearen ustez, zein da arte-kritikari baten eginbeharra?

- a) Artearen eta ikusleen arteko zubi lana egitea.
- b) Arteari buruzko ezagutzak ikusleen artean zabaltzea.
- c) Aurreko bi erantzunak balekoak dira.

## 3. Haizearen hitzetan...

- a) artea oinarri harturik herri baten historia irakur liteke.
- b) arteak eskaintzen duen ikuspegia subjektiboegia da herri baten historia irakurtzeko.
- c) artea herri baten historiaren atal txiki bat da.

**4. Zein dira elkarrizketatuaren hiru ikerketa ildo nagusiak?**

- a) Artisten diskurtsoa, arte-zentroen rola eta emakume artisten azterketa.
- b) Historiagrafia, arte-zentroek emakumeei eskainitako lekua eta artisten diskurtsoak.
- c) Emakume artisten azterketa, erakusketen diskurtsoa eta arte-zentroen rola.

**5. Komisarioen lana...**

- a) besteak beste, erakusketak antolatzea eta artisten ideiak publikoari helaraztea da.
- b) artistekin lan egitera eta euren ideiak jasotzera mugatzen da.
- c) pertsona askorentzat oso ezaguna da.

**6. Ondorengo baieztapenetatik zein da egia?**

- a) Sekula baino arte-historia ikasle gehiago dago.
- b) Azken aldian feminismitik pertsona asko gerturaten ari da artera.
- c) Arteari buruzko interesa daukaten gehien-gehienak arte-historia ikasleak dira.

**7. Euskal Herriko emakumezko artisten kasuan...**

- a) beraien arteko harremana oso estua da, ia ahizpak izango balira bezala.
- b) beraien arteko antolaketa-maila garatuta dago.
- c) aldarrikapen eta antolaketa fase batean daude.



Argazkia: Antonio Marín Segovia (CC BY-NC-ND 2.0)

# ERANTZUNAK

1. b / 2. c / 3. a / 4. c / 5. a / 6. b / 7. c

## TRANSKRIPZIOA

### Zein da Haizea Barcenilla?

Bueno ba arte-historialaria naiz. EHU arte-historiako irakaslea eta, horretaz gain (horrez gain), komisariotza ikasi nuen, hau da, komisario izateko master bat, eta erakusketak antolatzen ditut, eta arte-kritika idazten dut, edo, bueno, arteari buruz idazten dut.

### Nolako da arte-kritikari baten lana?

Ba arte-kritiko (arte-kritikari) baten lana esango nuke lehenengo gauza dela ikusleen eta artearen arteko bitartekaritza bat egitea, ez? Arteari buruz idaztea, jendeari helarazteko arteari buruzko jakinduria gehiago, edo errazteko bere ulertzea, edo bueno pixka bat hurbiltzeko arteari (artera).

### Artea herri baten historia ulertzeko modua da?

A bai, hori zalantzarik gabe. Ze, azken finean, artea da gure gizartearen adierazpen mota bat eta oso baldintzatuta dago bere kulturarengatik, bere historiarengatik, bere gizartearen izaerarengatik. Orduan, beti da irakurketa historiko partziala, irakurketa historiko guztiak direlako partzialak eta badauka puntu oso subjektiboa edo norberak ere bai (norberak ere) interpretatu dezakeena, baina egia da herri baten historia irakurri daitekeela artetik eta artea ere badela herri baten historiaren parte oso inportante bat.

### Zein dira zure ikerketa-lerro nagusiak?

Esango nuke hiru ildo nagusi daudela. Txikitatik (Txikitik) handira edo mikroik makrora joanda, lehenengoa izango litzake (litzateke) emakume artisten azterketa eta, bueno, emakumeek arte-sisteman izan duten lekua eta nola izan diren irakurriak historiografiaren aldetik. Gero hortikan (hortik) pixka bat zabalduz, asko interesatzen zait erakusketen diskurtsoa. Hau da, erakusketen bitartez, nola kontatu den emakume artista horien historia. ez emakumeena bakarrik, gizonezkoena ere (ere bai). Nola eraiki den historia eta zeintzuk geratu diren historia horien barnean, baina hori erakusketen ikuspegitik, erakusketek nola lagundu duten horretan. Eta, ja hortikan (hortik), hirugarren ildo izango litzateke arte-zentroek zelako ikerketa- eta erakusketa-ildo eramaten dituzten, ba historiografia hori idazteko orduan eta, baita ere, ba, bueno, beraien eginkizun historikoa eta historia idazteko orduan daukaten rola inguruko gogoeta egiteko orduan zer planteatzen duten.

### Zer da arte-komisarioa izatea?

Bueno ba da lanbide bat pixka bat arraroa, ez? Igual noizbait entzuten dena, baina jendeak askotan ez daki zehazki zer den. Eta komisarioak dira erakusketak antolatzen dituztenak, artistekin lanean, askotan, artistekin hizketan ikusteko zeintzuk diren artista horiek helarazi nahi dituzten ideiak, eta pixka bat erraztuz edo bideratuz hori publikora nola aurkeztu, pentsatuz arte, artelanak aurkezteko orduan zer nolako diskurtsoak ematen diren, ez? Orduan, bai batzuetan artistekin lan eginez, esan bezala, edo bestetan, bildumekin lan eginez ere ba saiatzen dira nolabaiteko narrazio bat edo ildo bat eraikitzen. Orduan, komisarioak dira hori antolatzen dutenak.

### Artearen eta historiaren inguruko jakinmina handia da?

Bai ikusi dudala azken urteetan jende asko artearekiko interesa daukana, nahiz eta artearen historia ez ikasi; feminismitik jende asko artera hurbiltzen ari da eta hori oso interesgarria iruditzen zait. Ikasketei dagokionez, nik uste dut, mantentzen garelako horko zaletasun- eta interes-mailan. horrek egonkor jarraitzen duela. Ez dakit igo egin den, ez naiz ausartzen halako zerbait esatera.

### Zein da Euskal Herriko emakume artisten egoera?

Ez dakit zenbateraino dagoen emakume artisten ekosistema bat. Nik esango nuke ekosistema badagoela eta horren barnean emakumeak daude (daudela). Eta emakume izateagatik, hainbat arrazoiengatik, baina guztiak emakume izatearekin lotuta edo asko, ba egia da leku pixka bat baztertu bat izan dutela. Eta azkeneko urteetan horren kontzientzia gero eta argiagoa da eta antolatze-maila oraindik oso artikulatua ez dagoen arren, bai esango nuke jendearen arteko (artean) ahizpatasun nahikotxo jaiotzen ari dela eta, batez ere, ba badirela artista asko ari direnak ba beraien lekua legitimatzea eskatzen, ez?